

Pala txapelketa, Santixauetako hitzordua

SANTIXAUAK IRITSI AHALA, URTEROKO EKINTZA BATZUK EZINBESTEKO HITZORDU BILAKATZEN DIRA. PALA TXAPELKETARENA ADIBIDEZ. ORBE KARDINALAREN PLAZA JENDEZ BETETZEN DA ILUNTZERO PILOTARIEI BEGIRA, EGURALDIA LAGUN. JADA 40 URTE INGURU BADIRA HORRELAKO TXAPELKETA EGITEN DELA NAHIZ ETA URTE BATZUETAN ETENA ERE IZAN ZUEN. GAUR EGUN, ANTOLATZAILE LANETAN ARI DIREN ROBERTO ARRARTE ETA RODOLFO RICOREKIN IZAN GARA.

-Ekainaren 16an finalak baina aspaldi hasi zenuten txapelketa...

Maiatzaren 25ean hasi ginen eta hor aritu gara ia iluntzero partidua jokatzeko.

-Zer moduz joan da aurten-goa?

Oso pozik gaude. Bai partidetza aldetik eta baita partiduek izan duten maila eta orekagatik ere. Ikusle aldetik ere erantzuna ona izan da. Ezin da gehiago eskatu.

-Aurten bi maila bereizi dituzue...

Iaz zenbait partidutan alde haundia nabaritu genuen. Partidua ere arin amaitzen ziren eta azken kanporaketak iritsi bitartean ez zen ganorazko neurketarik. Hori dela eta, mailaren arabera bi multzo egin ditugu eta pozik gaude,

bakoitzari bere aukera eskaini zaiolako.

-Zenbat bikotek hartu dute parte?


Guztira 17 bikote aritu dira. 7 maila gorenean eta 10 bigarren mailan. Maila bakoitzean kanporaketak jokatu ostean, finalak jokatu dira beraz, aurten bi bikotek jantzi dute txapela, bakoitzak bere mailan.

-Nongoak dira bikoteak?

Gehienak ermuarrak dira. Inguruko herrietakoak ere badira: Mallabiko 2 bikote daude, Eibarko beste 4-5 eta Debako beste bat.

TXAPELDUNAK

Lehen mailan:
Vidaurre-Arrarte
Bigarren mailan:
Lopez-Gurrutxaga



-Aurten patidu guztietan praka zuriak jantzita aritu dira guztiak...

Horrek partiduei xarma berezia ematen die. Jendea ere, txapelketako partidua dela konturatzen da eta horrek partidua jarraitzea animatzen du jendea.

-Orbe Kaldinal plazako pilotokian zer moduz?

Han jokatu ditugu neurketa guztiak. Frontisa ondo dago, lurra ere bai baina ezker aldeko pareta, zaharkitua dago oso, Udalari makina bat aldiz eskatu diogu zeozer egiteko baina momentuz honela dago kontua.

-Ermuan palaz jokatzeko ohitura hedatua dago...

Aste bitartean makina bat jendek dauka ohitura palaz jokatzeko, hala ere, 18-22 urte

bitarteko gazteek ez daukate palaz jokatzeko gogorik eta horren ondorioz ez dugu bikote gazte berririk txapelketa-
ra erakartzen.

-Pala txapelketaz gain, Bizkaiko ligan ere parte hartzen duzue...

Ermuko Pilota Elkartearen eskutik, aurten 6 jokalarik Bizkaiko pala txapelketan parte hartzeko aukera izan dugu. Emaizak ere bikainak izan dira gurekin batera arituen Carlosekin batera Bizkaiko txapelketa irabazi baitugu.

-Zein adinera arte joki liteke palaz?

45-50 urte bitarte goreneko mailari eusteko aukera dago. Hortik aurrera, mugikortasuna, auspoa, erresistentzia... gauza askok egiten du behera.

Asier Ibaibarriaga

ez zaitez atzean gelditu, zatoz guregana!

Diputazio, 15 - behea 943 17 01 88

943172665 ERMUA

Zubiaurre 20

*Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona*